# BELDARTXO LAGUNKINA

## USTIAPEN PEDAGOGIKOAK AMA ESKOLAN

## Gaitasunak (compétences)

### I. S'APPROPRIER LE LANGAGE

***COMPRENDRE***

- comprendre une intervention brève, si elle est claire et simple
- comprendre, réagir et parler en interaction orale
- interagir de façon simple avec un débit adapté et des reformulations.

Grâce à la répétition de l'histoire adaptée à leur âge, les élèves parviennent à comprendre le récit et peuvent le raconter à leur tour.

***PROGRESSER VERS LA MAITRISE DE LA LANGUE BASQUE***

**-** Parler en continu. Etre capable de s'exprimer de manière simple sur des sujets variés.

- Par des exercices adaptés, les élèves mémorisent et nomment les protagonistes et actions de l'histoire.

- En manipulant la langue, en écoutant le texte lu, les enfants s'approprient les règles qui régissent la structure de la phrase ; ils apprennent l'ordre habituel des mots en basque.

### II. DÉCOUVRIR L'ÉCRIT

***1 - SE FAMILIARISER AVEC L'ÉCRIT***

**Découvrir les supports de l'écrit**

Les enfants observent et manipulent le livre, commencent à se repérer dans une page, sur la couverture.

**Découvrir la langue écrite.**

- les enfants reformulent ce qu'ils ont compris ;
- ils sont encouragés à mémoriser des phrases ou de courts extraits du texte.

**Contribuer à l'écriture de textes**

- Etre capable d'écrire des énoncés simples et brefs.

Les enfants sont mis en situation de contribuer à l'écriture de mots (nom des insectes) ; ils parviennent à  transformer un énoncé oral spontané en un mot que l'adulte écrira sous leur dictée.

***2 - SE PRÉPARER À APPRENDRE À LIRE ET À ÉCRIRE***

**- Distinguer les sons et la parole** : jouer avec les mots

**- Aborder le principe alphabétique :**

Faire correspondre mot oral et mot écrit, mettre en relation des lettres et des sons.

## II. DEVENIR ÉLÈVE
## III.

Les enfants apprennent à rester attentifs de plus en plus longtemps.
Ils respectent les règles de la vie commune.

## V. DÉCOUVRIR LE MONDE

### *DÉCOUVRIR LE VIVANT*

- Les enfants observent les différentes manifestations de la vie.
- Ils apprennent à respecter la vie.
- Les élevages constituent un moyen privilégié de découvrir le cycle que constituent la naissance, la croissance, la reproduction, le vieillissement, la mort.

### *SE REPÉRER DANS LE TEMPS*

La notion de succession d'évènements est abordée dans le récit de l'histoire.
Elle aide à situer des événements les uns par rapport aux autres.
Une mise en ordre chronologique à l'aide de pictogrammes représentant les rencontres évoquées permet l'utilisation d'un vocabulaire temporel précis dont l'usage réitéré aidera à la fixation.

## VI. PERCEVOIR, SENTIR, IMAGINER, CRÉER

- Les enfants utilisent le dessin comme moyen d'expression et de représentation. Ils apprennent à représenter des êtres vivants par le dessin en tenant compte de leurs observations.

**MUNDUAREN EZAGUTZA – BELDAR HAZKUNTZA**

**Proiektua eraikitzen da liburutik abiatuz :**

- Ipuina, ikerketa lan baten abiapuntua da : beldarraren biziaren zikloa.
- Sare pedagogikoa : beldarrei buruzko dokumentuak eta argazkiak aurkitu (paperezkoak, bideoak, interneten), beldarrei buruzko beste istorio batzuk ikertu liburutegian.
- Biziaren gaian sartu : izaki bizidunen behaketa, biziaren zikloa, sortzea, garapena, itxuraldaketak.

| JARDUERA | HELBURUAK |
| --- | --- |
| Behaketa : beldar hazkuntza ikasgelan<br>- Urrats bakoitzarentzat, haurrak adiarazten du ikusten duena eta marrazki bat egiten du (marrazkiari doakion titulua idazten du edo irakasleari idatzarazten). Urratsez urrats, bere behaketen bilduma osatzen du.<br>- Afixa handi bat sortzen da : etapa bakoitzarentzat argazki bat eta azalpen bat kokatu (erranaldi sinple bat).<br>- Afixa hau eraiki dezake denbora ardatz bat bezala : bi argazkiren artean iragaten den egun bakoitza adiaraziz (adib. efemeridoaren orriak kokatuz).<br><br>Beldarraren janaria :<br>- Talde osoan : haurren proposamak experimentatu eta baieztatu edo ezeztatu (dokumentuen bidez egiaztatu).<br>- Kasu : Bombyx edo « zeta pinpirina » deitzen den pinpirinaren beldarrak hosto mota bakar bat baizik ez du jaten : mustondo zuriarena (Morus alba, fr. mûrier blanc). Haurrek hosto mota desberdinak proposatzen dituzte eta ohartzen dira zein den beldarraren gustukoa. Burasoekin, mustondo zuriko hostoen bila ibil daitezen galdegiten zaie.<br>- Bakarka, ebaluaketa gisa : jakien bereiztea proposatu (*beldarrak jaten du/ez du jaten*). | Urraspide esperimental batean sartu : hipotesiak sortu/entseguak eta behaketak frogatu/ondorioen arabera, hastapeneko galdeari erantzuna eman.<br><br>- Galdeei ihardetsi :<br>- Zer dira borobil nimiño horiek ?<br>- Zer da arroltze horietatik sortuko ?<br>- Zer du jaten beldarrak ?<br>- Zer da berri beldarren kutxan ?<br>- Zer pasatuko da gero ?<br><br>Denbora neurtu : Zenbat egun pasatu dira/pasako dira bi gertakarien artean ?<br><br>- Beldarrak zer jaten duen jakin.<br>- Dokumentuetan xehetasunak ikertu.<br>- Marrazkiak egin eta argibideak eman.<br>- Hiztegi berezia lortu. |
| Kuskua : behaketa<br>- hipotesiak egin eta idatzi beldarra zer bihurtuko den<br>- marrazkiak egin eta argibideak eman. | *Helburu berak* |
| Pinpirina : behaketa. *Jarduera berak segituz* | *Helburu berak* |

| EBALUAKETA | ONDORIOAK |
| --- | --- |
| - Haurrak bere marrazkien bilduma ordenan antolatzen du, bere liburuxka sortzen du, aurkezten du, hitz batzuk irakurtzen ditu.<br><br>- Haurrak irudiak/argazkiak sailkatzen ditu ; zikloa ahoz aurkezten du (ikus proposatuak diren fitxak). | Bertze animalia batzuen biziaren zikloarekin konparatu. Itxuraldatzen direnak eta itxuraldatzen ez direnak. Berdintasunak eta desberdintasunak adiarazi.<br><br>- Itxuraldatzen direnen kasua : igelaren hazkuntza.<br>Gaiari buruzko ipuina : « Un poisson est un poisson » Léo Lionni, Ecole des loisirs<br><br>Bertze intsektu batzuen behaketa antolatu. Konparaketak egin, marrazkiak...<br>Bertze intsektu batzuen hazkuntza lotura honetan :<br>http://www.inra.fr/internet/Hebergement/OPIE-Insectes/b-insviv.htm |

| HIZKUNTZA | |
|---|---|
| **JARDUERA** | **HELBURUAK** |
| **Liburua urratsez urrats deskribatu eta landu.**<br><br>1- Estalkiaren azterketa eta eztabaidak : « Zer ikusten duzu ? » « Zer uste duzu dela istorioa izanen ? »<br><br>2- Irakasleak irakurtzen du beldarra kusku barnean lotan den orriraino, haurrei erranez ez dela bukatua. Bizpahiru aldiz irakurtzen du bertze urratsak hasi baino lehen.<br><br>3- Hiztegia landu kim eta memoria joko batzuen bidez (ikus hiztegi txartelak) Hitz batzuk idatzi/irakurri eta doazkien irudiekin lotu.<br><br>4- Erranaldiak landu : orri bat hautatu, deskribapena egin eta elkarrizketa haurrei erranarazi antzerki moduan, bakoitzak bere rola hautaturik.<br><br>5- Ipuina haurrei kontarazi, ikasi duten hiztegia eta erranaldiak berriz gogoratuz. Ohartarazi izen lagunez eta superlatiboez (ilunegi, luzeegi, itsusiegi).<br><br>6- Haurrei proposatu : « Zein dira beldarrak aurkitzen ahal dituen bertze intsektuak ? » Haurrek asmatuko dute eta beste elkarrizketa zenbait sortuko.<br><br>*7-* Artean beldar hazkuntza hasten ahal da ! *(jarduera ikus)*<br><br>8- Haurrei galdegin ipuinaren segida asma dezaten.<br><br>9- Liburua bururaino irakur.<br><br>10- Lotura egin liburua eta hazkuntzaren artean. | - Irakasleak irakurtzen duen ipuin bat entzun eta ulertu.<br><br>- Haur literaturako ipuin batzuk ezagutu.<br><br>- Mezu bat/galde bat ulertu eta doakion erantzuna eman.<br><br>- Euskaraz mintzatzera ausartu.<br><br>- Hiztegi berezi bat gogoan hartu eta erabili.<br><br>- Euskalkiak ontsa ahoskatu.<br><br>- Egintzak adiarazi. Erranaldiak ontsa ahoskatu, gogoan hartu, eta beste testuinguru batean berriz erabili.<br><br>- Galdeak egin.<br><br>- Deskribapen bat egin.<br><br>- Istorio baten bukaera asmatu.<br><br>- Ahozko eta idatzizko hitz batzuk elkarri lotu. |

## OHARRAK

- Bigarren hizkuntzan sartzeko biziki egokiak dira “contes en randonnée » deitu ipuinak.
- Istorioan aitzinatuz agertzen den egituraren errepikapenak (egintzak, erranaldiak,…) haur gazteen gustukoak dira. Horiei esker, kontalariak entzuleen arreta kausitzen du. Haurrak istorioan aise sartzen dira, hipotesiak egiten ahal dituzte, istorioa gogoan hartzen dute, antzezten ahal dute. Franko laster gai dira segida baten asmatzeko eta idazlan baten sortzeko jende helduari idatzaraziz (irudiekin edo gabe).

***Lotura ikus :***
http://ecoles.ac-rouen.fr/circ_dieppe_est/outils/lecture/conte/doc-conte-07/conte-randonne.doc

## EBALUAKETA

- Haurra gai da orri baten deskribatzeko.

- Orri bat erakutsiz, gai da errateko zer den gertatu eta zer den ondotik gertatuko.

- Ipuinaren orrialde batzuk ordenan ezartzen ditu eta kontatzen du loturazko hitzak erabiliz.

- Ipuinetik hartu hitz batzuk irakurtzen ditu.

- Ipuinetik hartu hitz batzuk idazten ditu.

*(ikus haurren fitxak)*

## ONDORIOAK

Gaiari buruzko bertze liburu batzuk irakur :

Beldar gosetia – ouvrage broché d'Eric Carle
Dans la pomme de Claude Ponti (Broché - 10 mai 2007)
Un petit trou dans une pomme de Giorgio Vanetti (Cartonné - 1 janvier 2002

De la chenille au papillon de Paul Whalley
De la chenille au papillon. collection : montreur d'images. de VANDEN EECKHOUDT J.-P.